

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MUTRIKUKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko irailaren 7an egindako bilkuran Mutriku garapen sozioekonomikoaren alorrean diharduten elkarte, erakunde eta instituzioentzako dirulaguntzak emateko programa arautzeko 2022 ekitaldiari dagozkion oinarriak onartu zituen.

Kontuan harturik adierazitako oinarriak, dirulaguntza honi dagozkion deialdia burutzen da eskariak aurkezteko epea irekiz.

Mutriku, 2022ko irailaren 13a.—Alkatea. (5719)

Mutrikun garapen sozioekonomikoaren alorrean diharduten elkarte, erakunde eta instituzioentzako dirulaguntzak emateko programa arautzeko Oinarriak (Mutriku Garatuz). 2022ko deialdia.

ATARIKOA

I. Ondoko dirulaguntza deialdi honekin Mutrikuko Udalak alor sozioekonomikoan diharduten hainbat erakunde, instituzio eta elkareren jarduna sustatu, bultzatu eta babestu nahi du. Erakunde hauek oinarriko subjektuak direla ulertzen da Mutriku moduko udalerrien garapen sozioekonomikoa bultzatzeko. Aldi berean, era honetako elkarrekin sortzea eta zabaltzea ez da langintza erraza. Gizartean ez daude errotuta eta ohitura zein dinamika arruntetik kanpo geratzen den jarduna da. Tokiko Garapena bultzatu behar bada, ezinbesteko tresna bilakatzen zaigu herrietako alor ekonomikoak aztertzeke eta indartzeko.

Honen haritik, sektore desberdinen egoera aztertzeke eta euren etorkizuna aurrera begira jartzeko guneak behar dira, tokikotasunari eta herri izaerari eutsi ahal izateko.

Hala ere esan behar, gure eta inguruko udalerrietan ez da ohikoa sozioekonomiari loturiko elkarrekin sortzea, zalantzak eta erronkak partekatzea... izan ere, langintza hau gutxi batzuen eskuetan egon da eta dago oraindik ere tamalez. Ekonomia sozializatu eta demokratizatu nahi bada, aukera berdinen eremura ekarri behar da, zailtasunak zailtasun.

Ezinezkoa da tokiko garapena sustatzea era honetako herri dinamika sortzen ez badira. Horregatik, hain zuzen ere, indartu eta lagundu behar ditugu garapen sozioekonomiari loturiko elkarrekin hauek.

II. Tokiko garapenak duen erronka nagusietakoa enplegua mantentzea da. Alor ekonomiko bakoitzaren perspektiba historikoa ematen du eta oinarriak jarri ere bai etorkizuneko jopuntuak finkatzeko. Herriko sektore ekonomiko desberdinak, elkarrekin antolatuta eta elkarrekin hausnarketa etengabeak burutzeko guneak derrigorrean bultzatu behar dira. Beraietan, alor ekonomiko desberdinetan, komunean estrategiak finkatu eta lehiakortasun faktoreak lantzeko. Urteko helburuak, estrategiak, ekintzak... aurrera eramateko, ordea, gestiojintzak edo kudea-

AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, en sesión de fecha 7 de septiembre de 2022, aprobó las bases reguladoras del programa de ayudas a las asociaciones, entidades e instituciones que actúen en el ámbito del desarrollo socioeconómico en Mutriku correspondientes al año 2022.

Considerando dichas bases, se realiza la convocatoria de estas subvenciones, disponiendo el plazo para la presentación de solicitudes.

Mutriku, a 13 de septiembre de 2022.—El alcalde. (5719)

Bases reguladoras del programa de ayudas a las asociaciones, entidades e instituciones que actúen en el ámbito de desarrollo socioeconómico en Mutriku (Mutriku Garatuz). Convocatoria 2022.

PREÁMBULO

I. Mediante la presente convocatoria de ayudas el Ayuntamiento de Mutriku se marca el objetivo del fomento, impulso y apoyo a las entidades, instituciones y asociaciones que trabajen en el ámbito socioeconómico. Se entiende que estas asociaciones son sujetos básicos en el impulso del desarrollo socioeconómico en un municipio como Mutriku. A su vez, no es tarea sencilla la creación y el desarrollo de este tipo de asociaciones, puesto que no están arraigadas en la sociedad y se trata de una actividad que queda fuera de las costumbres y dinámicas habituales. Si se desea impulsar el Desarrollo Local, se convierten en herramientas imprescindibles para el análisis e impulso del ámbito económico local.

En ese sentido, con vistas al análisis de la situación de los distintos sectores y para su impulso a futuro, son necesarios escenarios para poder mantener el carácter local.

Pese a todo ello, no es habitual en nuestro municipio, ni en los próximos, ni la creación de asociaciones o entidades vinculadas al ámbito socioeconómico, ni el compartir dudas y objetivos, ya que, por desgracia, esta tarea ha estado reducida y sigue estándolo en manos de unos pocos. Si se desea socializar y democratizar la economía, se debe de trasladar a un ámbito de igualdad de oportunidades, por encima de las dificultades.

No será posible el fomento del desarrollo local si no se crean dinámicas locales de este tipo. Es por ello, precisamente, que debamos impulsar y apoyar estas asociaciones vinculadas al desarrollo socioeconómico.

II. Uno de los mayores retos con que cuenta el Desarrollo local es la conservación del empleo. Ello nos da la perspectiva histórica de cada sector económico, y nos ayuda a establecer las bases de los objetivos a futuro. Es obligado el impulso a los espacios de reflexión compartida y continua que se organizan por parte de las asociaciones en los distintos sectores económicos del municipio, para, en ellos, en los distintos ámbitos económicos, establecer estrategias comunes y factores competitivos. Por otra parte, para el desarrollo de los objetivos anuales,

ketak aparteko garrantzia eta indarra hartzen du eta, baita, elkarrekin lanak eta bizitzak ere. Honen harira, onuragarria litzateke bi zutabe garrantzitsu horietan laguntzea.

III. Ekonomia globalizatu honetan oso zaila da lanpostu berriak sortzea eta sektore ekonomiko batzuetan, are gehiago. Horregatik enplegu sustapena beste helburu garrantzitsu bat da.

Herri diseinu baten oinarrian, beti izan behar da kontutan zein beharrezko den herri izaera dinamikoaren euskarria eta hori lortzeko lan asko egin behar da eta huts asko ere bai, zorritzarrez, ezer lortuko bada.

Bide hau, bertatik sortua denean, hau da, kanpoko inbertsiorik gabe, bidea luzeago eta nekezago da, baina herri interesetan sustraituagoa. Enplegua sortzeko egin beharreko gestio-gintzak aparteko tratamendua eta laguntza eskatzen du. Gestio-gintza ezinbesteko ardatz nagusia izan arren, beste hauek ere kontutan hartzekoak lirateke:

– Dibertsifikazioa eta teknologia maila: Landu beharreko teknologia eremu berriak eta singularitatea zein berrikuntza faktoreak sartuko lirateke.

– Mutriku lehen sektoreak aparteko aukera ematen du, bai produktuetan eta baita bere transformakuntzan ere. Gure historia hurbileko jakinduria oinarri nagusia da.

– Aurrekoa bezala, historikoa izan ez arren, Mutriku aurrea begira klabea duen sektoreetako bat hirugarren sektorea da, izan ere, Mutriku bere kokapena eta historiagatik aparteko erakargarritasuna izan baitezake sektore hau garatzeko.

I. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAREN XEDEA

1. artikulua. Definizioa.

Oinarri hauek 2022 ekitaldian garapen sozioekonomikoaren alorrean beren jarduerak Mutriku udalerrian burutzen dituzten elkarte nahiz erakundeei eman beharreko dirulaguntzak arautzen dituzte.

2. artikulua. Eremua.

Deialdi honetan jasotako dirulaguntzak oinarri hauei lotuta Mutriku udalerrian garapen sozioekonomikoaren alorrean burutzen diren ekimenei, jarduerari edota programei aplikatuko zaizkie.

3. artikulua. Xedea.

Ondoko deialdiaren bidez Mutriku garapen sozioekonomiko alorrean diharduten erakunde eta instituzioen ondoko jarduerak dirulaguntzak jaso ahalko dituzte:

– Elkarteek Mutriku Udalarekin lankidetzaz aurrera eramatekoak.

– Kudeaketa mailako enplegu mantentzerako: alde batetik ohiko administrazio eginkizunetakoak, eta bestetik urteko planen lanketarakoak.

– Enplegu berrien sustapenekoak.

– Lehen sektorearen bultzadakoak.

4. artikulua. Onuradunak.

Laguntzen onuradunak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona juridikoak:

– Elkarte nahiz Erakundeen helburua Mutriku garapen sozioekonomikoa sustatzea oro har, edo sektore ekonomiko zehatzak sustatu eta bultzatzea.

– Pertsona fisikoaren edo Erakundearen helbidea Mutriku udalerrian egotea.

estrategias, acciones y demás, la gestión toma una gran importancia y fuerza, incluso para el trabajo interno de la asociación y su día a día. En ese sentido, sería conveniente ofrecer ayuda en esos dos pilares.

III. En esta economía globalizada es muy difícil la creación de empleo, más aún en ciertos sectores económicos. Es por ello que el fomento del empleo sea un objetivo importante.

En la base de un diseño de municipio, siempre se ha de considerar la importancia del soporte de un carácter local dinámico, y para lograrlo hay que trabajar muy duro y cometer muchos fallos también.

Este camino a recorrer, cuando es surgido desde lo local, es decir, sin inversiones externas, será más largo y más arduo, pero también será más arraigado a los intereses locales. La gestión necesaria al objeto de la creación de empleo merece un tratamiento y una ayuda diferenciada, y pese a ser la gestión un eje principal, también se deberán de considerar las siguientes:

– Diversificación y nivel tecnológico: Se introducirán nuevos campos tecnológicos y singularidad así como factores de innovación.

– El sector primario ofrece en Mutriku una oportunidad particular, bien en productos bien en su transformación, siendo la sabiduría de la historia cercana una base sólida.

– Así como en el punto anterior, pese a no ser histórico, el sector terciario es uno de los sectores clave para el futuro de Mutriku, puesto que por su ubicación y por su historia podría tener un especial atractivo para el desarrollo de este sector.

CAPÍTULO I

OBJETO DE LA SUBVENCIÓN

Artículo 1. Definición.

Las presentes bases regulan la concesión de ayudas a asociaciones, entidades e instituciones del ámbito del desarrollo socioeconómico que lleven a cabo sus actuaciones o proyectos en el municipio de Mutriku, correspondientes al ejercicio 2022.

Artículo 2. Ámbito.

Las ayudas contempladas en la presente convocatoria serán de aplicación para aquellas iniciativas, proyectos o programas encaminadas dentro del ámbito de desarrollo socioeconómico que se promuevan en el término municipal de Mutriku y que se ajusten a las presentes bases.

Artículo 3. Objeto.

Serán objeto de ayudas mediante la presente convocatoria las siguientes líneas de actuación llevadas a cabo por las entidades e instituciones del ámbito del desarrollo socioeconómico de Mutriku:

– Asociaciones que desarrollen una colaboración con el Ayuntamiento de Mutriku.

– Para el mantenimiento de empleados de gestión: Por una parte, para administración ordinaria y por otra parte, para el estudio de planes anuales.

– Para el fomento de nuevos empleos.

– Para promover el primer sector.

Artículo 4. Beneficiarios.

Serán beneficiarios de las ayudas personas jurídicas que reúnan los siguientes requisitos:

– Que la finalidad de las entidades o instituciones sea fomentar el desarrollo socioeconómico de Mutriku en general o el desarrollo y promoción de un sector económico específico.

– Que el domicilio de la persona física o institución esté en el municipio de Mutriku.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

- Dirulaguntza jasotzen den jarduerarako erabiltzea.
- Mutrikuko Udaleko garapen zerbitzuetatik eskaturiko informazio, argibide eta agiriak aurkeztea.
- Onartutako jardueran edozein aldaketa, edo aurreikusitako ekintzak egiten ez bada, Garapen Sozioekonomiko alorrari jakinaraztea, dirulaguntza aldatu edo itzularazteko.
- Zerga obligazioak betetzea Gizarte Segurantzarekin, Mutrikuko Udala, Foru Ogasunekin eta Estatuko Ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte segurantzarekikoak egunean izatea egiaztatzea.
- Mutrikuko Udalarekin zorrik ez izatea.
- Dirulaguntza publikoetarako lorbidetik baztertua izan ez izana.

6. artikulua. Aurrekontuko Kreditua.

Dirulaguntza hauek osatzen duten funts publikoak urteko aurrekontuan dagokion lerroan jasotako kredituaren muga izango du.

7. artikulua. Dirulaguntzaren izaera eta bateraezintasunak.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza hau bateragarria izango da beste Erakundeek emandako bestelakoekin. Hala ere, hemen aurreikusitako onuradunek ezin izango dute, helburu berari zuzendutako beste dirulaguntza publikoekin bat egin eta jarduera edo ekintzaren kostu osoaren % 100eko kopurua gainditu.

8. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Irizpide orokor moduan, onartzen den dirulaguntza kopuru osoa gehienez ere erakunde edo instituzioak aurreikusitako gastu eta sarreraren arteko kenketaren emaitza izango da.

Eman daitezkeen gehieneko dirulaguntzak kalkulatzeko ondorengo irizpideak erabiliko dira:

1. Garapen Sozioekonomikoarekin loturiko herriko elkar-teek 3.000,00 €ko dirulaguntza jasoko dute, urteko helburuetan enpleguari eusteko edo sustatzeko ekintzak agertzen badira. Baita ere, Mutrikuko Udalarekin lankidetzaren dinamika bat aurrera eramaten duten elkarte, erakunde eta instituzioak lagunduko dira.

2. Elkarte, erakunde eta instituzio dirulaguntza jasoko dute, enplegua mantentzeko jarduerak eta ekintzak erakundearen urte osoko egitasmoa agertzen badituzte. Kasu honetan bi kontzeptutan bananduko da:

2.1. Elkarteari dagozkion ohiko funtzionamendu lanetarako: Administrazio orokorra, dirulaguntzen kudeaketa, barne deialdiak, etab. burutzen dituzten giza baliabideetarako. Dirulaguntza kopurua: 3.000,00 €.

2.2. Kudeaketa mailako lanetarako: Urteko helburuen finkapena, marketing estrategiak, kalitate sistemen kudeaketa, ikuspuntu estrategikoen lanketa, berrikuntzen ildoan jorraketa etab. burutzen dituzten giza baliabideetarako. Dirulaguntza kopurua: 5.000,00 €.

3. Sektore ekonomikoak zehatzaren arabera: Lehen sektoreak hartzen duen estrategikotasuna kontutan hartuta, bertako nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edoeta berauen transformaketari loturiko enplegua bada, ateratzen den diru kopuru osoari % 10eko gehikuntza aplikatuko zaio.

Artículo 5. Obligaciones de los beneficiarios.

- Emplear la subvención en las actuaciones para las cuales ha sido otorgada.
- Facilitar toda la información, aclaraciones y documentos solicitados por el área de Desarrollo Socioeconómico del Ayuntamiento de Mutriku.
- Comunicar al área de Desarrollo Socioeconómico del Ayuntamiento de Mutriku cualquier alteración de la actuación aprobada, o la no realización de la acción prevista, a efectos de modificar o reintegrar la subvención.
- Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Mutriku, las Haciendas Foral y Estatal y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.
- No tener deudas contraídas con el Ayuntamiento de Mutriku.
- No haber sido excluida del acceso a subvenciones públicas.

Artículo 6. Crédito presupuestario.

Los fondos públicos que componen estas ayudas tienen el carácter limitado al crédito anual de la partida presupuestaria correspondiente.

Artículo 7. Carácter de las ayudas e incompatibilidades.

El otorgamiento de esta subvención a fondo perdido será compatible con cualesquiera otras otorgadas por otras entidades. No obstante, los posibles beneficiarios, no podrán optar a otras subvenciones si se supera el % 100 del costo de la actividad o acción a subvencionar.

Artículo 8. Cuantía de la subvención.

Con carácter general la máxima cantidad de ayudas a conceder no podrá superar la cantidad resultante de la diferencia entre el coste de las actividades presentadas a subvención e ingresos previstos.

Las ayudas máximas a otorgar se calcularán siguiendo el siguiente criterio:

1. Las asociaciones del ámbito del desarrollo socioeconómico percibirán 3.000,00 €, si en el plan anual prevén actuaciones encaminadas al sustento o fomento de empleo. También se otorgarán ayudas a las asociaciones, entidades e instituciones que lleven a cabo una dinámica de colaboración con el Ayuntamiento de Mutriku.

2. Las asociaciones, entidades e instituciones percibirán ayudas si en el plan anual prevén actividades y acciones para el sustento de empleo. En este caso, se distinguirán dos conceptos:

2.1. Para las funciones administrativas ordinarias de la asociación: Para los recursos humanos de administración general como gestión de ayudas, notificaciones,... Cantidad de la ayuda: 3.000,00 €.

2.2. Para funciones de gestión: Para los recursos humanos que determinen los objetivos anuales, estrategias de marketing, gestión de sistemas de calidad, estudio de objetivos estratégicos, líneas de innovación, etc. Cantidad de la ayuda: 5.000,00 €.

3. En virtud del sector económico concreto: Considerando el interés estratégico del primer sector, si el empleo en cuestión corresponda al ámbito agrario, ganadero o pesquero y/o a su transformación, la cantidad de ayudas a otorgar se incrementará en un 10 %.

II. KAPITULUA

PROZEDIMENTUA

9. artikulua. Eskarien aurkezpena eta tramitazioa.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzetarako eskariak Mutrikuko Udaleko Garapen Sozioekonomiko alorrari zuzenduko zaizkio, eta Mutrikuko Udaleko erregistro nagusian aurkeztuko dira.

Eskariak normalizatutako eskari-orrietan aurkeztuko dira, entitatearen edo erakundearen ordezkariak duen pertsonak sinatuta. Eskarietan honako zinpeko aitortza hauek ere jasoko dira: helburu beragatik jasotako edota eskatutako beste dirulaguntzen inguruko zinpeko aitortza eta oinarri hauetan aurreikusitako bazterte-arrazoietan sartuta ez egotearen aitortza.

Honako agiriak erantsiko dira:

a) Kasu guztietan:

- IFKren kopia.
- Eskatzailearen edo ordezkariaren nortasun agiriaren kopia.
- Elkarteen edo Erakundeen erregistroan inskribatuta egotearen egiaztagiria.
- Elkarteen edo Erakundearen estatutuen kopia.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izatearen aitortza.
- Bankuko titulartasun ziurtagiria.

b) Kontratutako pertsonenak edo funtzioetan delegatuak izan direnak:

- Nortasun agiriaren kopia.
- Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean emandako altaren kopia.
- Bere kasuan, kontratu denean enplegurik gabe egon izanaren ziurtagiria, Lanbidek emana.
- Bere kasuan, Lanbidek izapidetutako lan-kontratuaren kopia.

c) Diruz lagungarriak diren jarduerak zuzitzeko txostenak edota proiektuak.

d) Urteko jardueraren gastu eta sarreren aurreikuspena.

Eskaerak aurkezteak baimena ematen du eskaerako datuak tratatzeko, eta hala gertatu bada, datuak beste Herri Administrazio batzuekin edo erakundeekin trukatzeko ere bai, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ezarritakoaren arabera.

10. artikulua. Eskariak aurkezteko epea.

Eskariak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamu-netik hasita.

11. artikulua. Dirulaguntza ematea eta jarraipena.

Garapen Sozioekonomiko alorrak, baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak aztertuko ditu, eta, behar izanez gero, hamar lan eguneko epea emango du akatsak zuzentzeko edota agiri osagarriak aurkezteko.

Aurrekontuko kreditua baldin badago, dirulaguntzak ematea proposatuko da, edo, aurkeztutako proiektua bideragarri jotzen ez bada, eskaria ez onartzea.

Aurrekontuko kreditua Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskari guztiei legokiekeena betetzeko nahikoa ez bada, laguntzak proportzionalki gutxitu ahal izango zaizkie eskari guztiei.

CAPÍTULO II

PROCEDIMIENTO

Artículo 9. Presentación y tramitación de solicitudes.

Las solicitudes para las ayudas reguladas en estas bases irán dirigidas al Área de Desarrollo Socioeconómico del Ayuntamiento de Mutriku, presentándose las en el registro general del Ayuntamiento de Mutriku.

Las solicitudes se presentarán en impresos de solicitud normalizados firmados por la persona que ostente la representación de la entidad o institución. En ellos se recogerá declaración responsable relativa a otras ayudas concedidas y/o solicitadas para la misma finalidad, así como declaración de no encontrarse incurso en ninguna de las causas de exclusión previstas en las presentes bases.

Se acompañará la documentación siguiente:

a) En todos los casos:

- Fotocopia del CIF.
- Fotocopia del DNI del solicitante o representante.
- Documento acreditativo de inscripción en el registro correspondiente de asociaciones o entidades.
- Fotocopia de los estatutos de la asociación, entidad o institución.
- Declaración de estar al corriente de pagos con la Hacienda Foral y la Seguridad Social.
- Certificado de titularidad bancaria.

b) De las personas contratadas o delegadas en las funciones:

- Fotocopia del DNI.
- Fotocopia del alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social.
- En su caso, certificado de permanencia como desempleado a la fecha de contratación, emitido por Lanbide.
- En su caso, fotocopia del contrato laboral diligenciado por Lanbide.

c) Memorias y/o proyectos para justificar las actuaciones subvencionables.

d) Previsión de gastos e ingresos para el año en curso.

La presentación de la solicitud implicará la autorización del tratamiento de los datos contenidos en la misma y, en su caso, al cruce de los mismos con otras Administraciones Públicas o entidades institucionales, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento General de Protección de Datos de carácter personal.

Artículo 10. Plazo de presentación.

El plazo de presentación de solicitudes será de quince días que empezará a contar desde el día siguiente de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Artículo 11. Otorgamiento de la subvención.

El Área de Desarrollo Socioeconómico, examinará todas las solicitudes que cumplan los requisitos y, en su caso, otorgará un plazo de 10 días hábiles para subsanar errores o aportar documentación complementaria.

Si existe crédito presupuestario se propondrá el otorgamiento de las subvenciones o la desestimación de la misma en caso de que la actuación presentada sea considerada no viable.

En caso de que la cuantía económica del crédito presupuestario consignado fuese insuficiente para atender a todas las solicitudes que cumplan los requisitos de las Bases, las ayudas podrán reducirse proporcionalmente en todas las solicitudes.

Erabakiak amaiera ematen dio bide administratiboari; bere aurka berraztertzeko helegitea aurkeztu daiteke hilabeteko epean (edo administrazioarekiko auzi-helegitea bi hilabeteko epean), erabakiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik.

Garapen alorrak eskaturik 4 hilabetero dirulaguntza onarturiko jardueren eta ekintzen jarraipen bilera bat egin ahal izango du betetze maila egiaztatzeko.

12. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea.

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzen ordainketak burutzeko ondoko baldintzak izango dira kontuan eta, beti ere, udal Diruzaintzaren antolaketari eta erabilgarritasunaren arabera:

– Emandako dirulaguntza kopuru bereko bi ordainketaren bitartez egingo da.

– Lehenengo ordainketa dirulaguntza ematen duen ebazpenarekin batera egingo da.

– Bigarren ordainketa elkarteak justifikaziorako agiriak aurkeztu eta Garapen batzordeak egingo duen jarraipenaren baitan oniritzia eman ondoren egingo da.

13. artikulua. Dirulaguntzaren zuriketa.

Urte amaieran egingo den jarraipen bileran, elkarteak txosten bat aurkeztu beharko du, aurreikusitako helburuak betetzeko urtean zehar eginiko ekintzak zehatuaz eta jarraian aipatzen diren zuriketa agiriak aurkeztuz.

Eginiko gastua aurreikusitakoa baina txikiagoa bada, dirulaguntzaren bigarren ordainketa egiterakoan dirulaguntza gastutakoari ajustatuko zaio.

Zuriketa egiteko ondorengo dokumentazioa gehitu beharko du:

– Txostena: Ekintzak eta helburuak uztartuz.

– Izandako gastuen eta sarreraren taula.

– Fakturak eta euren ordainketa agiriak.

– Lan kontratuta edo zerbitzuaren faktura, Kudeaketa mailako enplegu mantenturako edo enplegu berrien sustapeneko laguntzen kasuan.

14. artikulua. Oinarriak ez betetzea.

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Ordurako dirulaguntzaren zati bat jasota izanez gero, hori itzuli egin beharko du, eta dagozkion atzerapen interesak eskatu ahal izango zaizkio.

III. KAPITULUA

BALDINTZA OROKORRAK

15. artikulua. Araudi orokorraren betetzea.

Dirulaguntza deialdira aurkeztzen diren erakundeek hertsiki bete beharko dituzte indarrean dagoen ekonomi, zerga eta lan alorreko araudia.

16. artikulua. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztiari Mutriku Udalak Emandako Dirulaguntzak Kudeatzeko Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko zaizkio.

Lehenengo xedapen gehigarria. Aurrekontuko diru-hornidura.

Oinarri hauetan programetan araututako laguntzak ematea ekitaldi ekonomiko bakoitzean aurrekontuko diru-dotazioa egoteari baldintzatuta egongo da.

La resolución pone fin a la vía administrativa; contra la misma puede interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de recibo de notificación de la resolución.

La comisión de desarrollo podrá solicitar una reunión cuatrimestralmente para verificar el cumplimiento de las actuaciones subvencionadas.

Artículo 12. Abono de las subvenciones.

El abono de las subvenciones contenidas en las presentes bases se realizará en varios pagos, siguiendo las siguientes condiciones, y siempre, atendiendo a las disponibilidades y organización de la Tesorería municipal:

– El pago de la subvención otorgada se realizará en dos pagos de igual cantidad.

– El primer pago se realizará junto a la resolución que otorga la subvención.

– El segundo pago se realizará una vez que la asociación presente los documentos justificativos y que la comisión de desarrollo dé el visto bueno en su reunión de seguimiento.

Artículo 13. Justificación de la ayuda.

En la reunión de seguimiento que se realizará a final de año, la asociación presentará un informe con las actuaciones realizadas a lo largo del año para cumplir los objetivos propuestos así como los documentos justificativos abajo indicados.

Si el gasto ejecutado por la asociación es menor al previsto a la hora de hacer la adjudicación de la ayuda, esta se ajustará al gasto real al hacer el segundo pago de la subvención.

Estos son los documentos que se han de presentar para la justificación:

– Informe: objetivos y acciones realizadas.

– Cuadro de gastos e ingresos de las actuaciones.

– Facturas y sus correspondientes resguardos de pago.

– Contrato de trabajo o facturas del servicio, en el caso de las ayudas destinadas al mantenimiento de empleados de gestión o al fomento de nuevos empleos.

Artículo 14. Incumplimiento de las bases.

El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de las condiciones establecidas en las presentes bases conllevará la declaración de la pérdida de derecho a la subvención, la obligación a restituir las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente.

CAPÍTULO III

CONDICIONES GENERALES

Artículo 15. Cumplimiento de la normativa general.

Las entidades e instituciones que opten a las ayudas deberán ajustarse estrictamente a la legalidad vigente en materia económica, fiscal y laboral.

Artículo 16. Normativa aplicable.

En todo lo no previsto en las presentes bases será de aplicación lo dispuesto en la ordenanza General para la Gestión de las Subvenciones Concedidas por el Ayuntamiento de Mutriku, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en las demás normas vigentes.

Disposición adicional primera. Existencia de dotación presupuestaria.

La concesión de ayudas reguladas en los programas de las presentes bases estará condicionada a la existencia de dotación presupuestaria.

Bigarren xedapen gehigarria. Araudia betetzea eta exekuzioa.

Mutrikuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak oinarri hauen garapenerako eta exekuziorako beharrezko diren xedapen guztiak emango ditu.

Disposición adicional segunda. Desarrollo normativo y ejecución.

La Junta de Gobierno Local de Mutriku dictará cuantos actos sean necesarias para el desarrollo, ejecución e interpretación de las presentes bases.